

Arturo Campion (1854-1937)

Deia, 1983-07-19.

Gauza asko egin da gure herrian lau urte hauetan, baina aberrilana hasi baino ez dugu egin, eta hasiera bera ere ez da abiatuko egiaz gure kulturaren oinarriko gizonak ikastoletan erakusten eta unibertsitatean aztertzen hasten ez garen bitartean.

Honelako bat, eta handia, dugu ia aipatu ere egiten ez dugun Euskal Herriko seme oharagarri hau: *Arturo Campion*.

Arturo Campion 1854garrengo maiatzak 7 zituela jaio zen Iruñean.

Honetaz nahi nuke zerbait argitu: dudarik gabe gure artean ondoen ezagutzen zuena Manuel Irujo jauna zen. Honek *Alderdi* argitaratutako lan batean: "Don Arturo Campion"¹, dionez, arrotz jatorriko merkatari familian sortu zen, Nafarroarekin harreman zabal eta begikoa zuen sendian. "Aún continúa llamándose (dio, eta 1954garrenean idatzi du artikulua) 'Casa Campion' la que fue de su padre". Baina honetaz aurkitu dut Don Manuelek *esandako*, eta zintan grabatua dagoen, beste zerbait: "Don Arturo Campion era nieto de un oficial francés del ejército napoleónico que en 1808 había invadido España; con las tropas francesas conoció este Campion el País Vasco y, en concreto Pamplona, y a Pamplona volvió acabada la guerra, abriendo un negocio de ferretería". Bi aipaerak, aurkako baino osagarri gehiago dirudite, eta izango dira.

Nolanahi, Arturo Campionen kasuak erakusten digu behin eta berriz etorkinak gure herrira sarri erakarri ohi duen ongaria.

Batxilergoa jaioterrian bertan egin zuen, Zuzenbide ikasketarako lehen urteak Oiñatiko Unibertsitatean, eta Karlisten bigarren gerra pixtu zenean, Campionek 18 urte, Madrilera bialti zuten ezkenekoak egitera. Baina ordurako Oinatin izan zuen irakasle jakintsua zen Estanislao de Aranzadiren eragina jaso zuen. Euskara ikasi zuen gogoz eta euskarari buruz garrantzi handiko liburuak idatzi zituen. Politiko ere izan zen: Nafarroatik diputatu, Bizkaitik senatore. Baina idazle bezala egindakoak aipatzeko ere ez nuke txoko honetan lekurik izango. Beste batean emango ditut nagusienak.

Gaurkoz, esan dezadan bizi, Iruñean eta Donostian zituela etxeak: 1936ko gerrak hemen arrapatu zuen Ategorrietako "Emiliaenea" etxean; bazituen ordurako 82 urte, eta zirrarak eragindako malkoak erori zitzaizkion Manuel Irujok Donostian eratu zen lehen ohorezko guardia jartzea hurbildu zitzaionean; hementxe bertan hil zen urtebete gero, 1937garrengo abuztuak 18 zituela.

Nazionalista zen edo ez zen eztabaidarik bada; biharkoan eman nahi nuke auzi honen erabakia.